

## Ireber Eraña Bizkaiko Trinketeko Bigarren Mailako txapeldun

10. orrialdea

## Zeanuri-Areatza

Areatza eta Zeanuriren arteko herri-kirol lehia jokatu zan abenduaren 26an Zeanuriko frontoian eta etxeokak irabazi ebezan proba guztiak zaku lasterketearena izan ezik. Txokor batzean, txinga eroaten, zaku lasterketan, trontzan, azkoran eta soka-tiran neurtu ziran. Gainezka egon zan Zeanuriko frontoia. **11. orrialdea**



## Aitzol Atutxak irabazi dau Urrezko Aizkolari Txapelketea

10. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 243

2016ko urtailaren 4a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Paleolitikoko grabaduak Lemoako Arlanpe koban



Arlanpeko Dama.

**A**rlanpeko Dama izenagaz ezetuko dira Lemoako Arlanpe kobazuloan Joseba Rios arkeologoak eta bere taldeak topautako Paleolitikoko grabaduak. Harizko bloke baten hiru andrazkoren irudiak agertzen dira. Bi ez dagoz osorik baina hirugarrena, Gönnesdorf-Lalinde estilo eskematizautako irudi kanonikoa da. Hau da, Alemanian eta Frantzia topautakoen bardina.

Irudi honek orain dala 17.500 urte inguru egin ebezan. Aurkikuntza honek garrantzia handia dauka. Alde batetik, estilo horretako sano irudi gitxi dagozalako Iberiar peninsulan, eta beste aldetik, Alemanian eta Frantzia topautakoak baino zaharra goa dalako. Arlanpeko Dama Bilboko Arkeologi Museoan dago.

Ikerketaren emaitzak *Oxford Journal of Archaeology* zientzia aldizkarian publikatu dira. **13. orrialdea**

## Lagunen arteko agurra urte barriari



Igorreko San Silbestre lasterketea.

Argazkia: Lorea Gutierrez Mintegia.

**U**rte zaharrari agur esateko San Silbestre lasterketak egonkortzen eta ugartzen doaz gurean. Aurten, Igorre eta Lemoan ezeze, Zeanurin be egin eben galapan urteko azken egunean. Beste arratiaz askok, barriz, mendi tontor baten gainean ospatu eben urte aldaketea; Gorbeian edo Belatxikietan batez be eta 2016ko lehenengo gaubean, kuadrilak tabernak bete ebezan.

2015 urtea kirol eta kultura ekitaldiz beteta amaitu zan eta holantxik hasi da urte barria; izan be, Errege Magoen eguna pasau arte ez da amaituten Gabonetako egitaraua.

Areatza, Bedia eta Igorren Errege Magoen Kabalgatak egongo dira. Nagusi-txoagoentzat, barriz, gau horretan, Karabie Gaztetxean Stankeik Band taldearen kontzertua egongo da. **6. orrialdea**

### ARRATIA

## Josune Gorospe Polisarioaren batzarrean izan da



EAJ-PNVko Josune Gorospe eta EH Bilduko Diana Urrea Legebiltzarkideak Polisarioaren XIV. Batzarrean izan dira. Han, Saharak independentzia lortzeako moduak landu ziran.

Sahararen egoera politikoa eta humanitarioa gero eta okerragoa dala eta nazinoarteak ez dauala konponbidea gauzatzeko behar beste presinorik egiten salatu dau Gorospek. **6. orrialdea**

### ARRATIA

## Areatzan, Artean eta Igorren aurrekontuak onartu ditue

Artean, EH Bildu eta Aldatuz Plataformearen aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz onartu ziran 2016rako kontuak; 2011tik lehenengo aldia da udal gobernuaren proposamena aurrera ateraten dana. Areatzan, EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz egin dabe aurrea 2016rako kontuak. Igorren barriz, EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren abstentzinoagaz onartu ziran. **5. eta 7. orrialdeak**

### ARRATIA

## Beinke jaialdiak helburuak bete ditu

Beinke jaialdian 19.000 euro batu ziran Gure Señeak eta Gure Nahia Alkartasuna, gaixotasun arraroak daukien alde behar egiten daben alkarteztat.

Gurutze Gorriak igaz baino jostailu gehiago batu ditu baina Arratian behar ziran 54 jostailuak bananduteko kanpaina orokorretik hartu behar izan ditue jostailu batzuk.

Arratiako Eleizeak Harribide Fundaziorako 30 kaja jateko batu ditu. **7. orrialdea**



## FRUTERIA BEATRIZ

FRUTEA PREZIORIK ONENEAN!

ASTEKO ESKEINTZAK

OTZARA ITZEL HONEN  
IRABAZLEA. ABENDUAREN  
23AN ZOZKETATU GENDUAN  
GURE BEZEROEN ARTEAN

EGUNERO  
ESKEINTZA  
BEREZIAK!

Lehendakari Agirre 31 Bis (Igorre) Telefonoa: 94 673 64 51



# ARRATIA ZURI-BALTZEAN

## JULIAN DE AJURIA: UBIDEZTAR BAT HOLLYWOOD-EN

Ubidetik Hollywood-era. Nork esango eban XIX. gizaldiaren amaieran Ubiden jaiotako mutil bat Argentinako zinematografiaren aitzindarietako bat izango zala eta Hollywood-en pelikula bat ekoiztera helduko zala! Bai, hori Julian de Ajuria izan zan.

Julian de Ajuria 1886ko martiaren 16an jaio zan Ubiden, Arraiko kaleko etxe baten, gaur egungo Magdalena kaleko 28. zenbakian: "la casa solariega donde nació y el balcón que mira al Gorbea, donde muchas veces recé con devoción a la Cruz de mi salvación", dino *El cinematógrafo. El Espejo del Mundo* idatzi eban liburuan. Bere lehenengo urteak Ubiden bertan igaro ebazan, etxean, baserriko lanetan lagun-

duz eta eskolan lehenengo letrak ikasiz; baina hamar edo hamaika urte eukazala Gasteizera, ferreteria-denda baten pintxe moduan behar egiten bialdu eban aitak. Laster Gasteiz be txiki geratu jakon, eta hogeitaz, sasoi haretan euskaldun askok egin eben legez, Argentinara zuzendu zan Amerikak egiteko gogoagaz, hemen be ferreteria baten behar egiteko.

Dendako lana itxi ebanean, Mario Gallo eta Pablo Epsteinegatz alkatu zan dokumentalak egingo ebazan ekoiztetxe bat sortzeako. Produktore lanaz gainera, pelikulen inportadore batentzat errekadista moduan be egiten eban behar. 1912an Sociedad General Cinematográfica ekoiztetxea sortu

eta pelikulak ekoizteari eta banatzeari ekin eutsan; ekoiztu ebazan pelikulen artean *Nobleza gaucha* aitatu behar da, zinema mutuaren garaian Argentinan arraskatarik handiena izan eban pelikulea.

Lezamako (Bizkaia) Maria Luisa Lodiogaz ezkondu zan. Neska hau Argentinan ezetu baeban be, ezkontzeko Lezamara etorri ziran. Argentinara itzuli eta bere negozioak gorantza egiten jarraitzen ebanez, Txileko Santiagon sukurtsal bat zabaldu eban. Buenos Aireseko zein Santiagoko enpresetan Ubideko lehengusu eta beste euskaldun batzuk euki ebazan lanean.

Negozioak Argentinan izan arren, Euskal Herria beti bihotzean erorian eta oporetan sarritan itzul-



Julian de Ajuria.

tzen zan Ubidera. Holango bisita baten, Bilboko enpresario batzuek batera Exclusivas Seleccione, S.A. enpresea sortu eban. Enpresa honek bere "Programa Ajuria" — Julianen pelikulen enpresa ba-

natzailaren izena— inportatu eta Espainia osoan banatuko ebazan pelikulak. Exclusivas Seleccione, S.A.-k sukursalak eukazan Madril-en eta Bartzelonan.

**Jon Urutxurtu**

**TELEFONO INTERESGARRIAK**

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak  
09:00etatik 22:00etara  
Urtailaren 4tik 10era**

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18

**22:00etatik 09:00etara  
Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.**

**Urtailaren 11tik 17ra**  
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

**22:00etatik 09:00etara  
Melero. Amorebieta-Etxano.**

**Urtailaren 18tik 24ra**  
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11

**22:00etatik 09:00etara  
Sarasketa. Amorebieta-Etxano.**  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan  
22:00etatik 09:00etara  
Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.**

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areata:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaltxeak**

**Arantzazu:** 94 673 92 05

**Artea:** 94 673 90 10

**Areata:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**

94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Trenak**

Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265**

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Otxandiotik urteerak:**

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Arrigorriaga**

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

**Zeberio-Arrigorriaga**

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arrigorriaga-Zeberio-Artea**

Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artea-raino heltzen da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Arrigorriaga-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union\* 94 427 11 11**

**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.  
**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.  
**Telefonoa:** 94 631 73 14.  
**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)  
**Zuzendaria:** Inigo Iruarrizaga.  
**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.  
**Erredakzino taldea:** Jon Urutxurtu.  
**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Inigo Iruarrizaga.  
**Publizidadea:** Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.  
**Banaketea:** Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areata), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).  
**Tiradea:** 6.800 ale.  
**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

**Babesleak:**



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



## ZEURE BERBEA

### Guk be egin geinke!

**B**einke... gesto polit batek dana aldatu leike: guk be egin geinke! Nik neuk be egin neinke!

Bakarrean gauza asko egin daitezke, baina alkartuta lortu daitezkeen eragina ikaragarria da. Hemen dogu horren frogatxo. Persona handi baten hasierako gesto, gogo eta ekimena, hara ze ekitaldi politean amaitu, bihurtu dan!

Asko dira gaur egun arraroak deitutako gaixotasunak daukiezan edo sufriduten dabezanak. Guzti-guztai alkartasuna adierazo eta gure abotsa altxau gura dogu egoera horretan dagozanen alde.

Beinke merezi dabela! Egin geinken gesto txikiena be handia izan daitekela jabetuta, Diman alkartu ginan geure aletxo ipinteko. Egoera larri horretan ia aislatuta eta inolako ziurtasun barik bizi diran guztiengana hurbilteko aukerea izan genduan, aukerea gure babesa, animoa eta geroa argitzen lagundu leiken iritxoarekin eurenganatzeko.

Persona honeen itxaropenak bizten lagunduteko gure ardura eta aldarikapena be aineratu da, izan be egoera horretan dan guztiak diagnostiko azkar eta zehatz bat izan dagian ahaleginak biderkatu behar dira, eta zelan ez ikerkuntza eta batez be borondate eta gogoak bideratzeko bitartekoak ipini.

Osakidetza, medikuntza fakulta-

deai eta orohar administrazioari, tratamendu egokia eta duina izan dagien neurriak hartu dagiezala eskatzen da, hala nola ikerkuntzan, diagnosi goiztiarrak zein osasun atentzinoan eta, familia baxotxaren egoera ekonomikotik harago, tratamendu egokirako osasun sarbidea guztientzako bermatu daitela.

Baina Diman egin dan ekitaldiaren muinean murgilduz, txapeldun handi baten bihotzean sartzean gara. Bai, Tubi eta Izaskunen erraietan, Joneren begi eta historiak markatuko sekuentzia, arrasto, sentimentu eta ardura koherentean. Jakin dakigu horrelako gaixotasun batek eroan zinduala gure artetik... baina ze handia da gure memorian itsatsita zagozala jakitea! Mina alkartasun bilakatzeko duintasunik badala gure artean. Zure aita eta amak, zu oinarri eta gomutan, egoera horretan diran guztiengana hurreratu eta gure sensibilitate alkartasunez jantzi dogu, behingoan, egia bihurtuz esakerea: egiten dogunak egiten gaitu.

Eskerrik asko Tubi eta Izaskun, zuen egoeratik indarrak atera eta herri bat gai baten inguruan batuta lanean ipini dozuelako, erakutsitako kemena eta egun zoragarria pasau arazotegaitik. Zelan ez, eskerrak be, ekitaldia antolatzen eta lanean ibili eta Dimara hurreratu zaien guztioi be.

Amaitzeko, desio eta aldari bat, aurrerantzean, ahalik eta inpotentzia eta ezintasun gitxien xurgatu daitela egoera hori jasan behar dabenen artean. Egin dozue... egin geinke! Beinke!!

DIMOZTAR BAT

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Bekoki



Personeak, buruan, begien goiko aldean dauen hazurrari bekoki (bekókie, agoskatuta) esaten deusagu Arratia inguruan. Batuaz, bariz, kopeta edo kopeta-hezur berbak erabilten dira. Bekokiko azalaren bidez keinuak egiten doguz gure sentimentu edo aldarreak adierazoteko. Esaterako, pozik edo alai dagoana "bekoki-argi" dala esaten dogu, eta hasarre edo txantxetarako gogo barik dagoanari "bekoki-ilun" esaten jako.

## ERETXIA

### Erabakitze eskubidearen galdeketea Diman. "Alkarregaz, Gure Esku Dago" alkarte sortu barriaren ekimenez



**ZEFE ZIARRUSTA**

Alkarregaz Gure Esku Dago Dima

**E**rabakitze eskubidearen aldeko "herri galdeketea" jarduera demokratiko moduan eta herritar baxotxak, norbanako eta komunitateko kide modura, eretxia emon eta erabakitze daukan eskubidearen aitortza eta ahalduz ariketa praktikoa moduan ulertzen dogu.

Demokrazia zuzen eta parte hartzailearen bidez herritarren eretxia jakin eta ondorioz podere publiko eta pribadu guztiak kontuan hartu beharko leukien erabagi eta guraria gainera. Erabakitze eskubidearen aldeko galdeketea, beraz, guztiok dogun eskubidea modu errealean egikaritzea da eta, persona baxotxari eta jentarteari, orohar, jagokozan eskubide eta ahalmenen kontzientzia hartzea be bai. Izan be, persona eta herriak euren etorkizuna erabakiteko daben eskubidea unibersala da, ondorioz eta ezinbestean, herritarri erabakitze daben eskubidea aitortu ez ezik, hartutako ebatziagazko errespetua erakutsi eta zor jakie. Eskuarte gatazka bat dogunean, beroni konponbidea emoteko tresna be bada herritarri galdeketea egin eta gehiengoaren akordio edo erabagiari berbea emotea, zentzu honetan sekulako aurrerapausu bat deritxagu herriari hitza emotea, herritarren esku ebatzia jartzea. Izan be, jarkera positiboa eta erakitzailea erakusten dau eta galdeketea bidez herritarri erabakite eskubidea aitortzeak. Europako markoan, Eskozia, Katalunia... tren horretara igonak diran une honetan, eta Euskal Herrian autodeterminazio edo erabakitze

eskubidea azken hamarkadetan presente eta askatasunari lotuta egon bada be, egun Europan barriro edegi da estatu barriak normaltasunez eta modu demokratikoan sortzeako aukerea, joera horretan murgilduta, azkenaldian erabakitze eskubideak lehen baino indar handiagoa hartu dau Euskal Herrian be. Garai historiko honek horregaitik dauka garrantzi berezia, jakinik aurreko belaunaldietan egindako lan eskergan oinarritzen garala guztiok be. Garbi dago baldintzak ereiten segidu behar dala, eta lan hori egunero egin behar da. Halan, erabakitze eskubidearen egikaritzeak hainbat tresna alkarlanean jartzea eskatzen dau: batzuk erakunde publikoen esku dagozanak; beste batzuk, alderdi politikoen esku; eta beste parte garrantzitsu bat jentartearen esku dagoana. Izan be, herritarroi, jentarteari toketan jako kultura demokratiko bat

izateko lan egitea. Eskozian egin ahal izan dabe galdeketea. Katalunian, estatuak trabak jarri arren, gizartearen indarragaitik eta ekimenagaitik, atzenean, herritarrek bozkatu ahal izan dabe modu batera edo bestera. Ez dago ezer betiko. Gizarte baten borondate demokratikoak ezartzen ditu aldaketak eta errotmoak. Dimako Alkarregaz Gure Esku Dago, herrian gauzatu gura dauan galdeketea, erabakitze eskubidearen inguruan dimoztarren eretxiagaz jabetzeko da, baina halanda be, Euskal Herria irudikatzen dogu galdekete horren muinean, "Herri bat, Nazino bat gara", jakinda hiru eremu administratibo, errazoi bat edo beste bategaitik inposatuta doguzala gure herriaren baitan. Euskal lurralde osoko herritar guztiak erabagi ahal izateko baldintzak sortu behar dira, eta hain justu, geure markotik, baldintza horreek lantze goaz; gero ikusiko da non, noz egin eta zelan kudeatzen dan erabakitze eskubidearen inguruan euskal herri modura galdeketea. Herri borondatea jasotea da gakoa. "Alkarregaz Gure Esku Dago"n sensibilitate askotariko jentea gagoz erabakitze eskubidearen inguruan ados jarri garanak gure herrian galdekete gauzatu daiten pausuk emoten, galdeketea bat aurrera eroteko metodologia ikasten, eta zereginak zehazten, planifiketan, eta abar. Bidean jarri gara eta, ziur, ibilian hainbat gauzaz ohartu eta ikasiko doguzala. Ikusi eta ikasi, eta batez be kultura demokratiko bat lantzea izango da gure behar nagusia. Gainera, topagune honetan, esandako moduan, sensibilitate desbardinako herritarrek alkarregaz arituko garnez, bide batez bizikidetzara bera be sustatuten ibiliko gara. Duda barik, gure herriko aniztasuna kontuan hartu beharko dogu galdeketea prestatze prozesuan zein galdeketea bera egitean, horixe da eta galdeketea batek euki behar dauan ardatzetariko bat. Holan, galdeketea egiteko baldintza egokiak ez ezik, erabakitze eskubidea herritarrek batuko dituan tresna izatea be lortuko dogulako.

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

**IZAN GINAN...**

**...BAGARA ETA IZANGO GARA**

Erakundeak Batz gurea

MONDRAGON



## LUMATUTEN



RUTH LINAZA

## Gabonak etxean

**T**xixirri mitxirri  
Komoli pan  
Zure semea

Errotan  
Joan joan  
Errota txikire  
Topau nauen  
Erbi bet  
Jaurti nautzen  
Harri bet  
Atara nautzen  
Ezkerreko begi gorri gorri bet  
Zemeri kanpa  
Zemeri kanpa  
Gari gari gari... txaup!

Gabonak. Etxekoak norma-lean baino gehiago batzean garan sasoi. Zahar eta gazte-agoak batera denpora gehiago egoten garan sasoi eta gure etxeko nagusiei erreparau ezke-ro, holango esakuneak entzuteko aukera itzela. Gure etxe askotan, amama eta aitita falta diran arren, beste batzuek ora-indino hortxe daukaguz, euren bizipenak kontetan. Euren bizimoduaren igaro izan dabezan pasarteak apal-apal kontetan

eta euskera jator eta aberats-aberatsa darabile ezpanetan. Gazteagoak garanok, desbardin entzuten doguna, ulertu bai baina erabilten ez doguna. Belaunaldien arteko desbardinatasuna sumatzen da momentu horreetan. Nik neronek, desbardin entzuten dot nik erabilten dodan euskerea eta eurena. Mirespenez entzuten dodaz istorio eta esakera zahar horreek eta enbidia puntu battegaz be bai. Gurako neuke nik neronek aberastasun horregaz berba egiteko gaitasuna eukitea. Jatorrago berba egitea, baina batuen sasoiak naz. Batueraz ikasia. Hori be aberatsa; ez txarragoa ez hobea, baina bai desbardina.

Halanda be, argi daukat gauza bat. Sasoiak aurrera egiten daben lez, hizkuntzak be aurrera egiten dabe, euren erara eboluzionau, sasoiak sasoi berba eta esakuneakaz. Eta nahiz eta gure aititen eta amamen berbakunea desbardina izan, euskerea erabilten dogun bitartean, nor garan eta zer garan jakingo dogu, zentzuna emoten deusalako bizi dogun bizimoduari, urtean baten Euskearen eguna ospatu beharrean, egunero euskearen egunak izan daitezat. Norberak erein behar dau horretarako hazia. Egunerokotasunean euskeraz berba egin. Eta ahal dogun neurrian, gure nagusiak egiten dabena barneratu eta antzean egiten ahalegindu, apal-apal eta harrokeria barik. Erabilta baino ez.

## ZERTZEAN



ARITZ ARRIZABALAGA

## Postontzia

**E**guneroko ohitura zuen, eta, ez zenez sekula ez asteburu pasa ez oporretan inora joaten, etenik gabeko usadio bihurtu zuen. Ez zuen sekula huts egiten.

Goizean egiten zuen, kafea egiten utzi eta gosaldu baino lehen. Batzuetan, erdi loan eta astiro jaisten zituenean ezkaratzera bideko eskailerak, etxera sartzen zenerako txistuka izaten zuen kafemakina. Postontzian jaso zituen gutun, propaganda eta orriak mahai gainean utzi eta sua itzaltzen zuen. Kafea kikara zahar batean zerbitzatu eta banan-banan irekitzen zituen jasotakoak. Eskuz gehienak, artaziekin orri zuriko gutunak.

Oro har, ez zegoen interesa zekiokkeen ezer. Ar-taziak gutxi erabiltzen zituen. Urte gutxian gizarteak oinez egiteari utzi eta hegan egiten hasi zenetik,

inork ez zuen posta arrunta erabiltzen, eta, mundu digitalak bera ez zuenez gainontzeko pertsonak legez maitemindu, jendeak ahaztua zuen mundu batean bizi zela iruditzen zitzaion.

Propaganda eta ordain-agiriez gain, nekez iristen baitzen gutunik.

Hasierako urteetan, sare bidezko posta agertu zenean, noizean behin iristen zitzaizkion gutun arruntak, baina gerora, nahastutakoren bat ez bazen, ez zen sekula ezer iristen.

Eta, nahiz eta ingurukoek eguneroko ohitura horren kontra hitz egiten zioten, goizero jaisten zen atarira.

Posta arrunta baino ez zegoen garaian abandonatu zuten.

Posta arruntez idatziko ziola esan baitzion abandonatu zuen egunean.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduaren ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkeko, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

Arratiko gizona  
Bilbora doa maiz  
Lemoako tranbian

eta beti garaiz  
bere artean dio  
umore txit alaiz  
traje berri batekin  
gaur bestituko naiz  
lehengo arlotea  
jantziko da galaiz"

"Bizkaiko aberatsak" Oskorri.

Arratiako txotxongiloak be sarritan joaten dira Bilbora. Hemen doguz "umore txit alaiz" Olentzeroren desfilean.

**Argazkia: Sara Gutierrez.**



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostiscl.com](mailto:gorosti@gorostiscl.com)

Zugaitik BEGITUten dogu  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)

Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

24h  
EGUNEKO OGIA  
vending pan  
IGORRE  
Lehendakari Agirre



## AREATZA

# Arratiako enplegu bulegoak atekak zabaldu ditu barrero



Enplegu Zentroa Areatzan.

### Erredakzioa

Arratiako Enplegu Zentroak atekak zabaldu ebazan barrero abenduaren 23an Areatzan, eta, urtailaren 15etik aurrera, Zulaibar Lanbide Ikastetxean (Zeanuri) be emongo dau zerbitzua astean behin. Zerbitzua zementatzen geratu zan bertan behera Arteako lokalean komunitaria sartzeko egoan iragarritasun arazoa dala-eta. Orain zerbitzuak, indarrean jarraituko dau Arratian, bai enplegua bilatzeko, bai lana topatzeko orientazioa emateko.

Areatzako Udalak Arratiako Udalen Mankomunitatea eta Lanbideguz alkarlanean zabaldu dau zentroa. Areatzako bulegoetan

bakarrik ez, zerbitzua astean egun batez Zulaibar Lanbide Ikastetxean emongo da. Honetarako errazoa da aurretik hartu-emonak eta sinergiak egon dirala lanbide zentro horregaz. Izan be, bertan jaso dabe prestakuntza, eskualdeko enpresa askotan jarduten daben profesional ugari.

### Ordutegia

Areatzan, Askatasun 34 zenbakiko bulegoan jenteari arreta emateko ordutegia, asteleheneretan, 09:00etatik 14:00etara, eta, eguaztenetan, 09:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara da. Barikuetan, barriz, 09:00etatik 14:00etara joan daiteke Zulaibar Lanbide Ikastegira.

## AREATZA/ARTEA

# Kirola merkeago

### Erredakzioa

Billaroztarrak Arteako kiroldegia eta arteztarrak Areatzako ugerlekuak bertako herritarren prezioan erabili ahal izango dabez abenduaren 29an udal biak sinatutako hitzarmenari esker. Herri biotako udal talde guztiak, ago batez emon eben hitzarmenaren aldeko botoa Areatza eta Arteako plenoetan.

Hitzarmenari esker, Areatzako ugerlekuetako urteko bono familiarak 55 euroko prezioa izango dau Areatza eta Artean errolatutakoentzat; gainontzekoentzat 90 eurokoa dan bitartean. Norbanako bonoak barriz, 35 eurokoak dira 16 urte baino gehiago dau-



Areatza eta Arteako alkateak.

kientzat eta 25 eurokoak 16 urte baino gutxiago daukientzat. Hau da, 20 eta 10 euro aurreztuko dabez, hurrengo hurrengo arteztarrak.

Arteako kiroldegian, Areatzan eta Artean errolatutakoak, urtean 100 euro, 60 euro aurreztuz, edo hiruhilabetean 35 euro ordaindu beharko dabez. Hiruhilabeteko kuota bakotxean 15 euro aurreztuko dabez billaroztarrak.

## ARTEA

# Onartu egin dira 2016ko aurrekontuak, 2011tik lehenengoz

### Erredakzioa

EH Bildu eta Aldatuz Plataformaren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz onartu dira 2016rako kontuak. Kontuok ia milioe bat (996.647) euroko diru sarrerak eta gastuak aurreikusten dabez. Barrikuntzen artean, Irisgarritasun eta Mobikortasun Plana egiteko diru partida bat, eta kultura bultzatzeko beste bat dagoz. Euskerea ikasten daben arteztarrak be laguntzea izango dabe.

Aurrekontuak modu parte-hartzailean egin dirala, azpimarratu eban Igor Etxaniz Arteako alkateak eta ia ehun personak hartu dabela parte prozesu honetan esan eban, "herritarrai entzun eta herritarrai jakitun" egoteko helburuagaz. Alkatearen esanetan ohiko gastuetatik aparte, beste gastuak "optimizetan" saiatu dira, gauza batzuk merkeago lortuz, beste batzuk bernegoziaz eta beste batzuk kenduz.

Inbersinoai jagokienean, Elexabeiti eta Larrazabaleko ur



Aurrekontuetako plenoa.

hornikuntza hobetuko da; herri altzariak kanpondu eta barruak ipiniko ditue; Kultur Etxea barriztuko dabe eta beste herri batzuekako alkatasuna eta kooperaziorako diru partida bat dago 2016rako onartu diran kontuetan.

### EAJ-PNVren emendakinik ez

Euren emendakin bat be ez zalako sartu aurrekontuetan emon eban kontrako botoa EAJ-PNVk, Josu Larrion EAJ-PNVko zinego-

tziaren arabera. Emendakinok ez sartzeko errazoa, epez kanpo aurkeztu zirala izan zala esan eban alkateak.

EAJ-PNVk, Enplegu Plan bat, jubiladuentzako urteroko bazkaria eta kanposanturako bidea asfaltetea eskatuten eban, beste gauza batzuen artean. EH Bilduk eta Aldatuz Plataformak EAJ-PNVren Enplegu Plana baztertu arren, beste Enplegu Plan bat aztertuten dagozala emon eben jakitera.

## IGORRE

# Errotondea izango da 2016an Igorren egingo dan obrarik handiena

### Erredakzioa

Abenduaren 21ean onartu ziran 2016rako Igorreko aurrekontuak EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVko abstentzioagaz. Udalak 4.445.073 euro kudeatuko ditu aurtan.

2016an egingo dan obrarik handiena errotondea izango dala azaldu dau Beinat Anzola Igorreko alkateak. Kontratazioa aterata dago. Martian hasi eta 5 hilabetez luzatu daiteke herriko erdigunean egingo dan obra hau.

Garakoin errekea bideratzeko lanak be egingo dira 2016an, uriolak ebiteko obrak amaituz. "Hori lehenbailehen egin gura dogu. Ura Ur Agentziagaz gagoz beharrean. Bere egunean, zubi zaharra bota, barria egin eta errekea bideratzea onartu genduan. Uda ordurako errekea bideratzeko baimen guztiak eukitea espero dogu" esan eban alkateak.

Futbol zelaian bedarra aldatuko da eta errugbi zelaian aldagela barruak egingo dira.

Orain arte emondako zerbitzuak mantentzen egingo dira: eta Beharbidetako Enplegua sustatzeko zerbitzua indartuteko aldaketa batzuk egingo ditue. Udalak zerbitzua errotan dauan Aldalan enpreari eskatzaileen jarraipen personalizaua egiteko eskatuko deutso. 212-215 persona inguruk daukie izena emonda Beharbidetako. Jarraipen personalizau hori izango litzateke hileroko ikustea ea lan bila dabizenak lanpostu eskaintzetara aurkeztu diran, ea curriculumak bialdu dabez, zertan ikusi dabez euren gabeziak, eta abar.

Enplegua sustatzeko diru laguntzetarako 50.000 euroko partidea dago eta Tokiko Garapen erakundeai laguntzeko be diru partida barri bat zabaldu da.

### Barrikuntzak prozesuan

Auzoetako batzarrak mantentzen egin dira, baina aldaketak batzuk be egon dira aurrekontuak egiteko prozesuan, parte hartzaileagoak izan daitezkan. Hori dala eta, erdigunean jente gitik hartzean

ebala parte eretxita, erdiguneko batzarraren orde, haima bat ipini eben eta han inkestak banandu ziran, jenteari proiektu handien lehentasunak ezarteko. Bi mila inkesta banandu ziran eta 170 erantzun jaso ebezan, % 8,5. Parte-hartzailearen profila hauxe da: 42 urteko gizona, erdigunean bizi dana eta beharrean dagoana.

Inkestaren datuak txosten baten jaso dira eta udaleko webgunean konsultatu ahal izango dira. Bideo bat be grabatu dabe jentearren eskariakaz.

### 2016tik 2018rako Plangintzea

Aurrekontuak apur bat estuak diranez, 2016tik 2018ra arteko Plangintza egiten dabiz Igorren. Hor urteko aurrekontuetan aske geratzen dan dirua, eta erremantentea, urtero batuta dagoan diruagaz, jentearren babes daukien proiektu handiak egingo dira.

Legegintzaldi osorako plangintza egin gura dabe. Urteetan zehar egingo diran proiektuak eta hurrengo urteetan egingo diranak jasoko dira bertan.



## ARRATIA

**Josune Gorospe: "Saharan ikuspuntu politikotik, etsipen puntura heltzean dagoz"****Erredakzioa**

EAJ-PNVko Josune Gorospek eta EH Bilduko Diana Carolina Urrea legebiltzarkideak parte hartu eben 2015eko abenduaren 16tik 20ra kanpamentu sahararretako Dakhlan izandako Polisarioaren XIV. Batzarretan. Batzar honeetan, saharar herriak independentzia lortzeako eta kolonizazioari amaiera emateko moduak jorratu ziran.

**Legebiltzarraren eta zuen talde politikoen babes emateko joan zinien Dakhlara?**

Legebiltzarrean badago taldeen arteko talde bat, alderdi politiko desbardinak dagozanak. Holako taldeetan planteamentuak oso bateratuta egoten dira eta talde guztien babesagaz egiten dira. Polisarioak alderdi politiko guztiak konbidatu ebazan arren, bertara EAJ-PNV eta EH Bilduko ordezkariak bakarrik joan ginan.

Legebiltzarrak beti agertu dau konpromiso irmoa, Polisarioaren eta saharar herriaren egoeraren aurrean. Nire kasuan, EAJko ordezkari lez be joan nintzan, EAJren babes politikoa be emateko.

**Zenbaterainoko babes ematen dutsee erakundeak Frenete Polisarioari eta saharar herriari?**

Erakundeen babes nazinoarteko mailan zein alderdi politikoena guztiz beharrezkoa da. Sahararrak aldarrikatzen dabe ez dagiguzala ahaztu. Behin-behineko kontua zana behin-betiko bihurtu da. Behin-behineko egin ziran errefujiaduen kanpamentuak eta 40 urte beranduago hainbat belaunaldiren etxe bakarra izan dira. Legeak babestu arren, eta erakunde desbardinetatik hainbat eta hainbat adierazpen egiten diran arren babes ematen, eta herriaren autodeterminazio eskubideak aldarrikatzen, eta lurralde okupatueta Giza Eskubideak urratzen dirala salatzen... benetako orduan, ez da ezer egiten.

**Egoera oso larria da, ezta?**

Ikuspuntu humanitariotik gero eta txarrago dagoz. Faktore asko batu dira: ia 40 urtez dagoz han, urrian uriolak egon ziran, laguntza ematen egon garan lurraldeak bizi izan dogun krisi ekonomiko ho-



**Josune Gorospe Mohamed Abdelaziz-egaz.**

ren ondorioz, askok murriztu egin dabe laguntzea... Ez da Euskadiren kasua izan. Aurten, esate baterako, Jauriaritzatik, 200.000 euro emongo jakiez. Igaz 180.000 izan ziran, % 11ko igoera izan da eta aurrekontuak % 1eko igoera izan dabe. Ahalegina handia izan da beraz. Espainiatik Euskaditik beste emongo deutsee, 200.000 euro. 200.000 euro! Espainiako Gobernuak daukan erantzukizunagaz!

Ikuspuntu politikotik, etsipen puntura heltzean dagoz, ze ikusten dabe badagozala ebazpenak eta legeak errazoa emoten deutsee-nak, legitimidade guztiagaz dagozala, baina gero Espainiak ez daua ezer egiten, Frantziak ez daua ezer egiten eta Marruekoek segiduten daua lurralde okupatueta bere egoera sendotzen.

Egoeraren konponbideak ez dau aurrera egiten.

**Marruekoek ez dauz beteten Nazino Batuen ebazpenak, ezta?**

Lurralde okupatueta Giza Eskubideak urratu egiten dirala behin eta barriro aitortu dabe erakunde askok. Nazino Batuak barbarako. Apirlean Ruz epaileak 11 marrokiar epaitu ebazan Giza Eskubideen urraketea argi dagoalako. Baina gero, bertara bialdu dan Minurso misino humanitarioak ez dauka gaitasunik Giza Eskubide urraketea esku hartzeko. Alde batetik aitortu bai, aitortu egiten da, baina gero ez jako konponbiderik emoten.

**Polisarioaren XIV. Batzar horretan konponbiderik topau da?**

Kongresuan gai garrantzitsu bi egon dira. Alde batetik, Polisarioa

bera barriztu beharra. Abdelazizen lidergoa inork ez dau zalantzan ipinten, uste dot % 90en babesaz atera zala, baina Frenete Polisarioa gaztetu behar da. Eta beste aldetik konponbidea lortzeako nondik nora ekin behar daben be landu zan. EAJ-PNVn uste dogu armak hartzea ez litzatekela erabaki ona izango. Uste dogu hori ez dala bide zuzena: ez leukez inora eroango eta nazinoarteko babes emateko aukera izango leukie.

Gure ustez beste bide batzuk jarraitu behar dabez nazinoarteko babesagaz, baina beste lurraldeak zintzotasunez jokatu eta presionau egin beharko dogu konponbidea lortzeako. Ezin da eskatu Nazio Batuen bidetik edo eskutik joatea, ez danean hortik ezer egiten. Hori holan bada, presino handiagoa egin beharko da.

Abenduaren 17an, Europako Legebiltzarrak Giza Eskubideen gaineko txostena aurkeztu eta hainbat ebazpen onartu ebazan, tartean Saharako herriaren inguruak. Hor eskatzen da, besteak beste, Minurso, Nazino Batuen misinoak, Giza Eskubideen urraketea dagozan kasuetan esku hartzeako aukera izan dagiala. Nazino Batuen ebazpenen arabera saharar herriarentzako autodeterminazioan oinarritutako konponbidea be eskatzen da.

Badago nondik jo, baina presino handiagoa egin beharko da. Ezpabere bardin jarraituko dabe. Ezin da onartu herri bat bere lurraldetik kanpo eukitea hainbeste denpora eta dagozan moduan, eta hor aiztutea. Hori ezin da onartu.

## ARRATIA

**Errege Magoen Kabalgatak Areatza, Bedia eta Igorren****Erredakzioa**

Beste urte baten sartu garan arren Gabonaldia ez da amaitu. Areatzan, Bedian, Igorren eta Lemoan Gabonetako egitarauak urteko lehen egunak be hartzean ditu. Horregaitik kirol eta kultura ekintzak, batez be umeentzakoak, jarraituko dabe kaleak eta plazak girotzen. Hamabostaldi honetako ekintzarik ikusgarrienetakoak, duda barik, Errege Magoen Kabalgatak izango dira. Errege egunaren bezperan kabalgatak egongo dira Areatzan, Bedian eta Igorren.

**Areatza****Urtailak 5, martitzena**

**18:00**etan, Erregeen Kabalgatea. Gauean, Luar Carrey Band taldearen kontzertua Laminetxe Gaztetxean.

**Bedia****Urtailak 4, astelehena**

**17:30**etan, Gabonetako pelikulea ludotekan.

**Urtailak 5, martitzena**

**18:30**etan, Erregeen Kabalgatea. Aurretik txokolatea bananduko da.

**Igorre****Urtailak 7, martitzena**

**18:30**etan, Erregeen Kabalgatea Mandoia kaletik.

**Urtailak 7, eguena**

**11:30**etik **13:30**era eta **16:30**etik **19:30**era Gabonetako Umeen Parkea, Zaztaparrak-en tailerrak. Aterpean.

**Lemoa****Urtailak 4, astelehena**

**10:00**etan, Bilbora urtekerea 4., 5. eta 6. mailakoak. Bazkaria etxetik eroan behar da. Itzulera ordua **17:30**etan.

**19:30**etan, ABD proiektu zinematografiko kolektiboaren aurkezpena. Karabie Gaztetxean.

**Urtailak 5, martitzena**

**23:00**etan, Stankeik Band taldearen kontzertua Karabie Gaztetxean. Donbassera, (Ukraina) gerra eremura, medikuntza eta higiene gauzak erroteko bilketearen azken eguna.

## LEMOA

**Material bilketea Gaztetxean Donbass-era (Ukraina) bialtzeko****Erredakzioa**

Lemoako Karabie Gaztetxean, urtailaren 5era arte, medikuntza eta higiene materiala dagoz batzean Ukrainako Donbass eskualdera bialtzeko. EH Donbass Elkartasun Komiteak antolatu dau bilketea eta Bilboaldeko hainbat eragilek egin dabe bat ekimenagaz.

Karabie Gaztetxeak emondako datuen arabera, Ukrainiako esta-

du kolpearen ondoren zonalde honetan 11.000 zibil hil, 17.000 zauritu eta miloe bi desplazadu dagoz. Hori dala-eta, Euskal Herrian, EH Donbass Elkartasun Komiteak, giza laguntza batzeari ekin deutso, baina itsas edukiontzi bat beteteko 3 tona material falta dira. Bilketa puntuak Barakaldo, Portugaleta, Santurtzi, Bilbo, Larrabetzu eta Lemoan dagoz.





ARRRATIA

# Arratiarrak EAJ-PNV eta EH Bilduri emon eutseezan botoak hauteskundeetan

**Erredakzioa**

Abenduaren 20ko Espainiako Gorteetako Hauteskundeetan,

Arratian alderdi bozkatuena EAJ-PNV izan da, eta bigarrena EH Bildu. Ahal Dugu, Euskal Herrian boto gehien lortu dauan alderdia,

hirugarrena izan da gure eskualdean, EH Bilduk lortutako boto kopuruaren erdira be ailegau barik. Beraz, Arratiak be emon deu-

tso botoa alderdi barriari, baina ez beste eskualde batzuetan beste. Holan, EH Bilduk botoak galdu ditu, baina bigarren bozkatuena izan da, Bizkaian laugarrena izan dan bitartean.

Dana dala, Bizkaian boto eta diputadu gehien lortu dauan partidua EAJ-PNV izan zan (182.245 boto eta 3 diputadu); bigarrena Ahal Dugu (170.317 boto eta

diputadu 2), hirugarrena PSE-EE (84.643 boto eta diputadu 1); laugarrena EH Bildu (81.552 boto eta diputadu 1) eta bosgarrena PP (74.279 boto eta diputadu bat).

Senadurako, EAJ-PNVk 3 senatari lortu dauz eta Ahal Duguk bat. Aikomen, errepresentazioa lortu dabon partiduen bozka kopurua Arratian.

	Errolda 2015	2011	Abstentzinoa 2015	2011	EAJ-PNV 2015	2011	EH Bildu 2015	Amaiur 2011	Ahal Dugu 2015	PSE-EE 2015	2011	PP 2015	2011
Arantzazu	289	285	%14,88	% 13,68	96	107	108	115	30	4	11	0	5
Areatza	900	893	% 25,22	% 20,83	252	297	249	276	89	18	46	38	55
Artea	594	601	% 20,88	% 16,97	195	209	175	220	57	10	18	20	29
Bedia	837	792	%26,05	% 23,86	303	325	103	151	107	36	51	31	50
Dima	1.134	1.093	%23,99	%19,4	304	343	408	484	105	8	9	7	18
Igorre	3.193	3.299	%30,75	%27,31	876	1.004	763	1.036	342	84	147	58	106
Lemoa	2.662	2.620	%26,11	%25,42	670	675	567	783	404	131	189	66	158
Ubide	135	148	%28,15	%25,68	21	30	59	66	9	1	0	3	8
Zeanuri	1.003	1.027	%22,43	%17,72	370	406	282	376	79	6	16	14	23
Zeberio	883	882	% 27,07	%26,08	300	329	208	274	99	8	19	12	11
<b>Guztira</b>	<b>11.630</b>	<b>11.640</b>	<b>%24,55</b>	<b>%21,67</b>	<b>3.387</b>	<b>3.725</b>	<b>2.922</b>	<b>3.781</b>	<b>1.321</b>	<b>306</b>	<b>506</b>	<b>249</b>	<b>463</b>

ARRATIA

# Dirua, jostailuak eta jateko ugari batu da alkartasun kanpainetan

**Erredakzioa**

Gabonaldi honetan, hainbat eragileren ekimenez, ekitaldi eta kanpainak ipini dira martxan, egoera latzetan bizi diranai edo euren alde behar egiten dabon alkarteak lagunduteko. Orokorrean helburuak bete egin dira eta dirua, jatekoa edo jostailuak jasoteaz gainera, egoera gogorrek bizi dabean hainbat kolektibo bisibilizatu eta arazoaren gaineko konzientzia be sortuten lagundu dabe.

Beinke jaialdian 19.000 euro batu ziran Gure Señeak eta Gure Nahia Alkartasuna, gaixotasun arraroak daukienen aldeko alkarteentzat. Dirua lortuteaz gainera, Gure Señeak eta Gure Nahia Alkartasuna alkarteak eta egiten dabon lana ezetutera emotea gura eben antolatzaileak. Dima eta Arratia osoko jente asko batu

zan jaialdian eta helburu hori be lortu dala dinoe.

Gurutze Gorrikoen esanetan, jostailu barriak jasoteko kanpainak be bere helburuak lortu ditu. 54 jostailu banandu dira Arratian, baina danak ez dira Arratian batu; kanpaina orokorretik hartu behar izan ditue jostailu batzuk. Dana dala, igaz baino jostailu gehiago jaso ditue aurten eta dinoe arratiar askok esfortzu handia egin dabela, "Gurutze Gorriko zugatz azpian" jostailuak be ipinten.

Arratiako Eleizeak egoera administratibo irregularrean dagozan etorkinen alde behar egiten dauan Harribide Fundazioarentzat jatekoa jaso dau. Abenduaren 19an, Zeanuriko San Isidro eleizan, 30 kaja bete ebezan tomate, arrain konserba, azukre, orio, garbantz, kakao, gaileta, esnea eta beste jatekoakaz.



AREATZA

# 2016ko aurrekontuak onartu ditu Udalak

**Erredakzioa**

Abenduaren 28an, EH Bilduren aldeko eta EAJ-PNVren kontrako botoakaz onartu ziran 2016rako udal kontuak. Igaz baino diru gehiago kudeatuko dau Udalak aurrekontu honeekaz; izan be, 1.641.764,82 euroko diru sarrerea aurreikusten dabe (igaz baino % 4,8 gehiago) eta 1.620.134,03 euroko gastuak (igaz baino %3 gehiago).

Lehenengo aldia da EH Bilduk bere aurrekontuak aurkezten dituala Areatzan, eta Idoia Ruiz zinegotziaren berbetan "ilusinoz" aurkeztu ditue. Modu parte hartzailean egiteko 3 bilera egin dira esan eban Ruizek, eta bilera honeetan 48 personak, 17 andrak eta 31 gizonek, hartu eben parte, 238 ekarpen eginez. Herrian ipinitako buzoietatik aurrekontuetarako 113 ekarpen jaso dabez eta e-postatik beste bat. Guztira 352 ekarpen izan dira.

EAJ-PNVren ustez, horrek ez dau esan gura aurrekontuak parte-hartzaileak izan diranik "gauza asko sartu dira kontuetan batzurretan agertu ez diranak, herritarrek eskatu ez dabezanak. Gauza batzuk ez doguz ondo ikusten" esan eban Damian Agirremota EAJ-PNVko zinegotziak.

Aurreko legegintzaldian onartutakoa errespetatu egiten dabela kontu honeek esan eban Ruizek.



**Aurrekontuetako plenoa.**

**Ondareak diru sarrerea lautu**

Gastuak jagokienean, igaz baino diru gehiago dago langileen gastuetarako (229.475,15 euro, igaz baino % 6,78 gehiago) eta zerbitzu eta ondasun arruntetarako (866.866 euro, % 32,44 gehiago). Inbersinoetarako, barriz, igaz baino gitxiago (304.282,66 euro, % 29,76 gitxiago). Finantza gastuak, transferentzia arruntak, kapital transferentzia eta finantza pasiboak be igaz baino diru gitxiago eroango dabe. Hata guzti be, gastuak % 3 inguruko igoerea daukie.

Diru sarrerak igaz baino ia bost puntu handiagoak izango dira kontu honeen arabera. Alderik

handiena ondare sarrerai jagokienean dago, igazko 41.420 eurotik 164.700 eurora pasatuz. Batez be, basoak emongo dabe diru hori, baso batzuetan pinuak botatea eta entresaka egitea toketan dalako "2015ean ez zan ezer bota eta aurten botako doguz 2015 eta 2016ko loteak" azaldu deutso BEGITURI Idoia Ruizek.

Zuzeneko zergak ia bardin mantenduten dira; zeharkakoak, barriz, hazi egingo dira, 10.000 eurotik 29.500 eurora pasauko dira, eta tasak eta beste sarrera batzuk be nabarmen igoko dira. Transferentzia arruntetatik eta kapital transferentzietatik, oster, diru gitxiago sartuko da.



**ARRATIAKO HISTORIA (II)**

# Ondarearen bidezko Arratiako historia bat (II)

Arkitektura erlijiosoan sartuta, Antonio Deunen ermitea (Elexalde auzoa, Igorre) estilo errenazentistan (klasizista) hasi eta barrokoan amaitutako eraikina dogu. Antzeko ezaugarriak ditu Dimako "Piedadea"k. Tenplu hau estilo klasizista eta barrokoaren adierazle nagusia da Arratian.



Zubiare Jauregia. Zeanuri.

**Angel Larrea Beobide**

XVIII. mendean egin zan ondare erlijiosoagaz jarraituz, hona hemen adibide eder batzuk: Lemoako eta Zeanuriko Andra

Mari eta Zeberioiko Santo Tomas eleizetako kanpantorre barrokoak. Lamindaoko Madalena eleizearen (Dima) eta Areatzako Komentuaren fatxada barrokoak antzekoak eta garai berekoak dira; Monja Klaratarren Komen-

tuko kapilea barrokoa da eta erre-  
taula nagusia Barroko estiloaren azken momentukoa.

XVIII. mendearen amaieran hasita eta hurrengo gizaldian zehar hainbat errota ipini ziran marxan, Zamakola errotea lez (Indusi au-

Dimako kanposantua da arkitektura neoklasikoaren elementu parebakoa Arratian (Euskadiko Monumentu Nazionalen artean dago); gainera, bertako batek, Kristobal Bernaola, arkitekto dimoztarrak diseinatu eban 1840. urtean

Bizkaifisios SLk  
bi zentro ditu  
**Fisioterapia  
Zentroa  
Igorre**  
Elexalde 4  
Telefonia 94 631 55 08

**Andra Mari  
Klinikea**  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1. Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

**Udarako BEGITUREN kamiseta barriak salgai**

10 eurotan, Begitu-lagunak 8 euro

Bialdu mezua [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
helbidera neurria adierazoz

**ASESORIA  
Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: [gorbeialde@gorbeialde.com](mailto:gorbeialde@gorbeialde.com)

**agoa** Ortodontzia  
hagin klinika Inplanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia

Bidebarri 1, behea  
48140 Igorre-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalejota Zentzua 101  
R.P.S. 31/06

**begitu**  
arratia ubide pobretu

**Kili-Kili** Umeen denda

**Umeen denda**  
94 673 63 51  
Agirre Lehendakaria 10  
Igorre  
[kilikigorre@gmail.com](mailto:kilikigorre@gmail.com)

**arratiako  
instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gasak  
Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

**Olaxte**  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gubitua  
Begiko tentsinoa  
Lentillen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak

Sabilno Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 657 70 03 - [olaxteoptika@hotmail.es](mailto:olaxteoptika@hotmail.es)



zoan, Dima). Zamakolan be, Etxenagusia baserria Zamakolatarren jaiotetxea izan zan eta, Simon Bernardo Zamakolaren denporan, Dima herriaren udaletxea be izan zan. Garai bereko arkitektura zibil barrokoaren ezaugarri onak dira: alde batetik, Zeberioko Udalak, beheko solairuan eta sarrera moduan, arku "karpanel" bi ditu; bestetik, Areatzako "Rotaetxe Etxeak", uriko etxe barrokoak, errentadoreentzat eginak; eta jauregi bi honeek: Arteako Ugarte Jauregia (lehenago, Torretxea), XVIII. mendean birreregia, Ziarrusta sendiaren armaria be badau; eta Zeanuriko Zubiate Jauregia, estilo barroko "rokoko"an egina, fatxada nagusian Rotaetxe sendiaren armaria dauka.

#### "Arratiar" baserria XVIII. mendean hasitako eredu

Eredu honen etxe ugari konserbetan dira Arratian eta inguruan. XVIII. mendean hasi ziran eta XIX. mendean jarraitu eben egiten, kantaletan harri landua erabili eben eta etxe-barruan egurra, bigak eta oholak josteko. Ezaugarri arkitektonikoak: etxeak oinarri kubikoa dauka eta teilatua lau uretara; beheko solairu osoan kortea ganaduarentzat; lehenengo pisuan suetea eta saleagaz batera logelak, berotan egoteko (beheko animalien beroa aprobetxauz); fatxadan ataria egon beharrea, goiko pisura igoteko, eskilarak (harrizkoak zein oholakaz eginak); eta etxearen goikoaldean kamarea, bedar sikua eta sagarrrak sikatuten eukiteko.

Urigintzearen arloan, Plazak agertu ziran XVIII. eta XIX. men-

deetan: Zeanuriko Plazea eta Zeberioko Zubialde, adibidez. Populazinoa era konzentraduan edo bilduan jarri zan etxeetan biziten, zabalduten hasiak ziran bide barrien ondoan.

#### Dimako kanposantu neoklasikoa

Arkitekturaren, Barrokotik Neoklasizismo estilora doan pausua ikusteko Ubideko San Juan Bataiatzailea eta Dimako San Pedro eleizetara, XVIII. mendean amaieran eta XIX. mendean eginiko tenpluetara, jo beharko dogu; esate baterako, Dimakoaren kasuan: Barrokoan hasi zan eleizea eta Neoklasizismoan amaitu zan sakristinia). Arkitektura zibil barrokotik Neoklasikoa ikusteko, eraikin bi honeek nabarmen: Del Barrio Jauregia (Biteri auzoan, Artea) eta lurre Goikoa Jauregia, Alcalá-Galiano familiarena. Honek armari koloreztatua dauka fatxadan.

Dimako kanposantua da arkitektura neoklasikoaren elementu parebakoa Arratian (Euskadiko Monumentu Nazionalen artean dago); gainera, bertako batek, Kristobal Bernaola, arkitekto dimoztarrek diseinatu eban 1840. urtean. Aitatu beharreko beste elementu batzuk dira: Arantzazuko San Pedro eleizea, Umaran arkitektoak egina 1820ko urtean; eta Ubideko Udala, Herriko Plazan dagoana. Urigintzearen esparruan badogu adierazle on bat Areatzako Plazan: "Askako Iturria", Martin Saracibar, Gasteizko artista neoklasikoak egina 1845. urtean; baita be, Areatzako udaletxea (antxinako Eskolak), Pedro Luis Bengoetxea,

Zeanuriko arkitektoak diseinatu 1862an. Baserrien kasuan, barriz, azken eredu arkitektonikoa emon zan XIX. mendean (azken baserriak 1910eko hamarkadan egin ziran). Bizimodu biko etxe hau errentadoreak bizi ahal izateko egiten zan, zeinda Arespetsueta baserria moduan (Bildosola auzoan, Artea).

Neoklasizismoan hasi baina Arkitektura Garaikidean, hau da, XX. mendean egin zanaren barruan, honako elementu honek sartzean doguz: Dimako udale-

txea, 1900 urtean Kasto Zabala arkitektoak egin eban estilo post-neoklasikoan; Gorbeia lehen kurutzea, burrinazkoa, 1901eko urtean jarri zan, baina jausi egin zan oso altua zalako (33 metro-takoa; gaurkoak 17 metro ditu); Ubideko Madalena, Aretxaga-Letona familiaren hilobi-ermitea, 1906an egin zan estilo eklektikoan; Arteako Jesusen Bihotza eleizea, XX. mende hasikerako estilo neogotikoan eraikia; amaituteko, Ubideko Aretxaga Txaleta, Acebal arkitektoak eginikoa 1916

urtean, eta Zubizarreta Etxea (Elexalde auzoan, Igorre), biak altzatuak XX. mendean lehen hamarkadetan modan egoan estilo eklektikoan.

Ondorio modura, zera esan geinke Arratia inguruko Ondareak: 1) Arkitektura zibila eta erlijiosoa oparoak dira Arratian, batez be Barroko estiloan; eta 2) Baserriak badauka interes etnografikoaz gain, balio edo garrantzia arkitektoniko, estetiko eta antropologiko-historikoa. Beraz, guztion babes behar dau.



Piedadea Diman. Fondoan San Pedro eleizea.

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)  
[alkizabal@alkizabal.net](mailto:alkizabal@alkizabal.net)  
Zabalik 07:00 - 19:00

# ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA  
Amorebieta-Lemoa bidea  
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26  
48330 Lemoa (Bizkaia)

**KÄRCHER**  
Banatzaile ofiziala

- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
- Garraio zerbitzua.



## PELOTEA

**Lemoako Ireber Eraña  
Bizkaiko Bigarren Mailako  
Trinkete txapelduna****Ireber Eraña.****Argazkia: [www.bizkaiapilota.com](http://www.bizkaiapilota.com).****Erredakzioa**

Bizkaiko Trinketeko Bigarren Mailako buruz buruko Nagusien finala, Lemoako pelotari bi egon ziran aurrez aurre txapela lortzeako lehian: Ireber Eraña eta Iñaki Lejarrera. Erañak irabazi eban partidua, 30-16 emoitzeagaz. Finala Abadiñon jokatu zan abenduaren 19an.

Ezker paretan be finalista izan dira Lemoakoak. Abenduaren 18an, Zallan, Bizkaiko Txapelketako Maila Bereziko Binakako Nagusien finalera, Lemoako bikote bat heldu zan. Txapela lortu ez arren, Aitor

Etxebarriak eta Oier Etxebarriak sano ondo jokatu eben eta partidu osoan irabazten joan ziran. Azkenean Usansolokoak lortu eben txapela 22-17 irabazita.

**2015 ona**

Aitor Erauzkin Lemoako Esku Pilota taldeko entrenatzaileak ondo baloratu dau 2015ean egindako beharra. "Ezker paretan emoitza oso ona lortu dogu kontuan izanda gure mutlak txapelketako pelotari gazteenak izan dirala. Trinketean be bai itzela gure mutlak lortutakoa: finalista biak klubekoak izan ziran eta".

## ZIKLO-KROSA

**Legazpin, Oñatin eta  
Arrasaten, Julen Zubero  
podium-ean****Erredakzioa**

Ziklo-kros denporaldi atipikoa oraingo, Berrizkoa salbu zirkuitu guztiak siku, lupetz barik egon diralako. Dana dala, arratiarrak sano ondo dabiz. Elite Mailan, Julen Zuberok podium-a egin dau atzen hiru lasterketetan: Legazpin eta Oñatin hirugarren eta Arrasaten bigarren.

Abenduaren 13an, Arrasate podiumeko bigarren kajoira altxatu zan Zubero. Hasikeratik, lasterketa osoan, aurretik joan zan lemoaztarra, baina Jose Antonio Diezek irabazi eban proba, arratiarrari segundu batzuk aterata.

Hurrengo astean, abenduaren 20an, Zuberok hirugarren egin eban Oñatin. Zirkuitua zati bitan

banandu eitekean: zati bat tenikoa zan eta bestea arina, kurba askogaz. Julen Zubero legez, beste kategorietan be nabarmendu ziran arratiarrak. Batez be Master 30ean. Izan be, David Busto lemoaztarra txapelduna izan zan kategoria honetan. Bigarren Mikel Eplazak egin eban eta Arratia Ziklista Elkarteko Mikel Nuñezek laugarren.

Abenduaren 27an Euskadiko Txapelketa jokatu zan Legazpin, zirkuitu siku eta azkar baten. Elite mailan, Julen Zuberok hirugarren postua lortu eban, Aitor Hernandez eta Javier Ruiz de Larrinagaren atzetik. Master 30en Mikel Epalza Lemoakoak eta Master 50ean Igorreko Manu Quintanillak be hirugarren egin eben, baktok bere kategorian.

**Julen Zubero.****Argazkia: Julen Bilbao.**

## AZKOREA

**Aitzol Atutxa  
barriro be  
txapeldun****Erredakzioa**

Aitzol Atutxak irabazi eban abenduaren 31n jokatu zan Urrezko Aizkolarien Kopako finala Asteasun. Joseba Otaegi eta Iñaki Azurmendi izan zituan aurkari. Azkolari baktokak hamabost kanaerdiko ebagi behar izan ebazan. Joseba Otaegi izan bazan be lehenengo enborra ebagiten lehena, bigarren enborrerako aurreneko postuan egoan Atutxa, eta amaierara arte hortxe joan zan. Iñaki Azurmendik egin eban bigarren eta Joseba Otaegik hirugarren. Atutxak 39 minutu eta 24 segundu behar izan ebazan beharrak amaituteko, Azurmendik 40 minutu eta 39 segundu eta Otaegik 46 minutu eta 12 segundu. Atutxak finalaren hurrengo egunean zera inoan bere facebook-eko profilean "2015. urtea kirol arloari jagokonez sano oparoa izan da. Gatxa izango da holango emoitzak barriz be bardintzea. 8 garaipen izan dira, batak besteak baino ilusino handiagoa egiten dau baina aurten lortu barik neukan Donostiako Urrezko Kopa eta Euskal Herriko bigarren txapela izan dira prezia duenak. Eskerrik asko garaipen honeek lortzean lagundu deustazuen guztiai, eta txapel guzti honeekaz poztu zarieno. Herriz herri, plazaz plaza animau eta zoriondu nauzuen danoi".





## HERRI KIROLAK

# Zeanuri garaile kantxan, kantxatik kanpo Areatza



Zeanurikoak gorritz eta Areatzakoak urdinez.

Argazkiak: Miren Begoña Idigoras

### Erredakzioa

Areatza eta Zeanuri herrien arteko herri-kirol lehia jokatu zan abenduaren 26an Zeanuriko frontoian. Itzela frontoiko giroa, gainezka egoan, herri biak irabazi eben, biak garaile, zeanuriztarrak kantxan irabazi eben eta billaroztarrak gradetan. Txokor batzean, xinga eroaten, zaku lasterketan, trontzan (gizonezkoak eta andrazkoak), azkoran eta sokatiran neurtu ziran. Proba guztiak, zaku

lasterketarena izan ezik, irabazi ebazan Zeanuriko taldeak. Proba irabazteak puntu 2 emoten ebazan eta galtzeak 1, soka-tiran izan ezik (3 puntu irabazteak eta 1 galtzeak), Zeanurik 14 puntu lortu ebazan eta Areatzak 8. Herri bietako lagunak ibili dira desafioa prestatzen, "baina batez be persona bat aitatu behar da, eta zorionak emon behar jakoz Irati Astondoari guzti hau posible egitearren" inoan ikusle batek.

Errebatxarrik egongo ete?



## MENDIA

# Areatzako Lamino Kirol Klubaren izena Mendiganako buzoian

### Erredakzioa

Ez da erreza buzoi barriak ipintea ez dalako aukera askorik egoten, baina Mendigana mendiko buzoi barriak Lamino Kirol Klubaren izena daroa abenduaren 19tik. Basauriko Baskonia Mendi Taldeak ipini eban buzoia eta eurak izan dira konpontzeaz arduratu diranak. Buzoi barria ipinteko

50 lagunetik gora alkartu ziran.

Lamino Kirol Klubekoak urrietan konturatu ziran Mendiganako buzoia apurtuta egoala, Areatzako martxea prestatzen egon ziranean. Bizkaiko Federazioagaz ipini ziran kontaktuan orduan eta Basauriko Mendi Taldeak ipini ebal buzoia jakin eben. Basaurikoak buzoia konpondu eta Areatzakoak antolakuntza eta

hamaiketakoaz arduratu ziran. Areatzako alkarteak be konbidau ebezan eta billaroztar askok parte hartu eben. Horregaitik, orain ipini dan buzoiak Baskonia Mendi Taldea eta Lamino Kirol Klubaren izenak daroaz.

"Egun berezia izan zan, beste mendi talde bategaz alkarregaz egindako ekintza bat izan zalako. Jai eguna izan zan guretzat. Mendiganan bertan hamaiketako egin genduan, Areatzako kuadrilak antolatuta. Hirumugarrieta be bisitau genduan, Areatza, Artea eta Orozko batzean diran puntua" dino Xabi Iturriaga Lamino Kirol Klubekoak.



## Berdea marroian erabili

### Erosketetarako Poltsa Konpostagarriak

Abendutik aurrera,  
Arratiako dendetan,  
erosketetarakopoltsa  
konpostagarriak  
emongo  
ditue dohainik.



Kolore berdeari esker ezagutuko dituzu, eta edukiontzi marroian erabili ahal izango dira.

Edukiontzi marroirako izena emon dabenek **landare-hondakinak** botateko erabili ahal izango ditue, eta oraindino izena emon ez dabenek Udalera edo Mankomunitatera jo ahal izango dabe, zerbitzuan izena

emoteko; bertan, beharrezko material guztia emongo jake, **DOHAINIK:** ontzia, poltsa konpostagarriak, edukiontzi marroia zabaltzeko giltza eta bertan itxi leitekezan hondakinei buruzko azalpen-liburuxka.

INFORMAZINO GEHIAGO:

94 631 17 17





## ERAKUSKETEAK

## Arratiako Tranbiaren erakusketea urtailaren 15era arte luzatu dabe



Arratiako tranbia bere lehen egunetan.

## Erredakzinoa

Bilboko Bizkaiko Foru Liburutegian urri bigarrenaren 30ean zabaldu zan Arratiako Tranbiari buruzko erakusketea hasikera baten abenduaren 29ra arte ikusgai egotea pentsau bazan be, jentearen aldetik izan dauan harrerea kontuan hartuta, Foru Aldundiaren Liburutegiko arduradunak urtailaren 15era arte luzatzea ebatzi dabe.

Ehun urtetik gora igaro dira, gehienbat Arratiako tranbia izezagaz ezagutzen dan Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoa jaio zanetik; eta 2014ko zemendiaren 30ean bere heriozaren 50. urteurrena bete zan. Urteurrena atxakiatzat hartuz, eta garraibide zahar haren gorabeherak ezetutera emoteko asmoz, Zertu Kultur Elkartek, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesaz, Bilbotik Durango eta Arratiarako Tran-

bia Elektrikoa. 50 urte Arratiako Tranbia barik erakusketa ibiltaria antolatu dau.

150 argazkik, zinema irudiak (Julian Elejoste, Felipe Manterola eta NODOren grabazioak), prensa albisteak, grafikoak, tranbiagaz zerikusia daukien hainbat objektuk, eta bidaiarien eta merkantzien garraiorako tranbien maketak osotzen dabe erakusketea.

Bestalde, katalogoa be argitaratu da, bertan erakusketan azaltzen diran irudiak eta materialak batzeaz gain, tranbiaren historia laburra azaltzen da.

Erakusketa ibiltari honek Zeanurin hasi eban bere ibilbidea urtailaren 30ean, eta hurrengo geldialdiak Igorren, Azpeitiako Burnibidearen Euskal Museoa, Lemoan, Galdakaon eta Areatzan egin ditu. Bizkaiko Foru Liburutegia izango da bere ibilbidearen azken geltokia.

## ANTZEZLANA

## Igorreko andra talde batek sortutako komedia antzeztuko da Lasarte Aretoan



Komediaren egile eta antzezleak.

## Erredakzinoa

Urtailaren 29an Miriam Herbonen zuzendaritzapean, Igorreko andra talde batek *Mujeres saliendo del cuento* antzezlana estrenauko dau Lasarte Aretoan. Antzezlana amodio erromantikoari kritika egiten deuto umorez.

Taldea, Igorreko Emakumeen ar-

teko topaketa interkulturaletatik sortu zan. "Herrian, hartu-emonak izan ahal izateko andren arteko sare bat behar zala pentsau neban zinegotzi nintzanean. Eta horretarako, modu desbardinak diseinatu nebazan, ondorioa zein izango zan ondo jakin barik" azaldu deuto BEGITURI Soraya Lizundia taldekoak. Holan, eta andrak alkartzeko helburuagaz,

hilean behin batzean hasi ziran Igorreko hainbat andra. Hasikera baten, topaketa horreetan gai bat jorratzen eben, baina jente gehiago bertara batzeako helburuagaz, zerbaist ludikoagoa egitea pentsau eben eta holan, igaz, antzerkia egitea ebatzi eben. Testua idatzi eta ensaioak egin ostean, urtailan taularatuko dabe lana.

## Ipuinetatik urtendako pertsonajeak

*Mujeres saliendo del cuento* komedian, ipuin tradizionaletatik urtendako pertsonajeak (Txanogorritxu eta bere amamak, Edurne Zurik, Loti Ederrak eta Errauskiñek hain zuzen be) matxismoa irudikatuten dauan ehiztariari egiten deuto aurre. "Lehenengo andren amodioa biziteko modua erakusten dau" dino Marisol Calzada taldekoak.

Taldeko partaideak, egin dabe behar guztia: antzezlana sortu, jantziak eskuratu edo josi, antzeztu, eta abar.

**Mujeres saliendo del cuento**

**Egileak:** Marisol Calzada, Maria Jesus Geresta, Ana Maria Grajales, Juanita Lizarralde, Soraya Lizundia eta Begoña Uriarte.

**Urtea:** 2015.

**Generoa:** komedia.

**Hizkuntza:** gaztelania.

**Estreinaldia:** urtailaren 29an, 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan.

**Zuzendaria:** Miriam Herbon.

**Aktoreak:** Marisol Calzada (Errauskiñe), Maria Jesus Geresta (Edurne Zuri), Ana Maria Grajales (Txanogorritxu), Juanita Lizarralde (Txanogorritxuren amama), Soraya Lizundia (Loti Ederra) eta Begoña Uriarte (ehiztaria).

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskera eta kulturearen alde

**Hamabostero Begitu zure etxean**

**begitu**  
arratia ubide zeberio

**13 urte eta gehiago**

**Egin zaitez zeu be Begitu-lagun**

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkartek ateratako produktuak.  
Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€



Moztu eta bidali helbide honetara:  
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48142 Artea



## JOSKINTZEA

# Barroeta joskile lemoaztarra Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Osoko Adiskide

Jon Urutxurtu

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Osoko Adiskide izentau eben joan dan abenduaren 14an, Javier Barroeta joskile lemoaztarra. Sarrera lanaren irakurketea Bilbon egin eban joskile lemoaztarrek Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzean Javier Barroeta eta goi-mailako jantzigintza Bizkaian izenburupean.

Aurretik, Mikel Badiola Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen Bizkaiko Batzordeko presidentek, Jesus Moya idazkariak eta Begoña Cava Deustuko Unibertsitateko irakasle titularrak hartu eben berbea, eta ondoren Javier Barroetak bere sarrera lanaren irakurketeagaz jarraitu eban.

Barroetak bere bizitza profesionalaren gainbegiratu egin eban: 18 urtegar gurasoen Lemoako etxean zabaldu eban lehen tailerretik, Pedro Rodríguezen tailerretan behar egiteko Madrilera egin eban saltoagaz jarraituz eta Bilbora itzultzerakoan, hamar urtez Kamouraska izeneko larru-dendan arte eta sortze zuzendari moduan behar egin eban aldia aitatzuz.

1989. urtean Goi Mailako Joskintza etxea sortu eban Bilbon eta hor jarraitzen dau gaur egun. Bertan bere jantzi-bildumak egin eta aurkeztu ez eze, bezeroak be ondo-ondo jagoten ahalegintzen da. Holan, lehenengo puntadatik azkenengoraino, andrak desbardin sentidutea lortzean dau, bere diseinuak eurentzako pentsautako modelo eksklusiboak dira eta.

**Goi Mailako Joskintza Eskola**  
Berealdian azpimarratu eban, bere joskile lanaz gainera, azken aldian formakuntzarako Goi Mailako Joskintza Eskolan zentru

dauz bere ahaleginak. Eskola hau 2015eko martian zabaldu eban Bilboko Concha Jeneralaren kaleko 6. zenbakian daukan bere tailerretan eta harrera ezin hobea euki dau, Euskal Herriko zein estatu mailako zein atzerriko leku desbardinatetik etorritako ikasleak daukaz eta.

Eskola horren bitartez formakuntza espezializaua eta kualifikaua eskeini gura deutse modearen inguruan dabilzan eta euren gaitasunak garatu gura dabezan diseinatzaile eta profesionalai: "Eskola honen bidez nire esperientzia eta joskintzaren munduan ipinten dodan pasinoa transmitidu gura deutset modearen munduan dabilzan gazteai".


Barroeta munduko moda etxe garrantzitsuenetako estaduko bezerorik onenetarikoa da, hori dala-eta Parisen eta Milanen egiten diran urtez urteko Goi Mailako Joskintza aurkezpenetara konbidatu joaten da. Dior, Valentino eta Chanel, besteak beste, dira bisitetan dituan pasareletako batzuk.

Beste gauza batzuen artean zere monia soinekoetan espezializau da: emaztegai, amabixi eta konbidatu jantzietan, besteak beste. Une berean pret-a-porter erroa diseinu propioa egin eta goi mailako larrugintzan be lan egiten dau "hau, sentimentuz beterik egiten dodan joste-lan zehatz eta emozionala da" dino Barroetak.

Beste arlo batzuetan be hartzean dau parte joskin lemoaztarrek: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Osoko Adiskidea da, Euskal Moda Alkartearen sortzaileetako bat, UNEDeko laguntzailea, AMAVI-ko kolaboratzailea eta Bilbao International Art & Fashion-eko hainbat erakusketa-aren epaimahaikidea.

## HISTORIA

# "Arlanpeko Dama" izena ipini deusie Lemoako Arlanpeko koban topautako Paleolitikoko irudiari



### Erredakzioa

Lemoako Arlanpe kobazuloan andra itxurako grabaduak topau ebezan Joseba Rios arkeologoak eta bere taldeak 2011n. Irudiok ikertu ostean, osotuen behintzat, paleolitikoko Gönnesdorf-Lalinde estilo eskematizautako lehenengoetako irudi bat dala ondorioztatu dau. Aurkikuntza honek, glaziarren osteko populazioaren mobimentuak Kantauritik Europako iparraldera zabaldu ziraneko teoria be sustatzen dau.

Grabaduak, 60 kilo inguruko bloke handi baten dagoz. Blokea 2008an topau eben arren, 2011n blokeari buelta emon arte ez ebezan grabaduak ikusi. "Segiduan konturatu ginan garrantzia handiko aurkikuntza zala" esan eban Joseba Rios arkeologoak Lemoan emondako berealdian.

Grabadu horreetan, hiru irudi agertzen dira. Bik ez dabe andra irudi osoa irudikatzen eta andra irudiak dirala pentsau arren, irudiak dirala pentsau arren, irudi osoa da ezetutera emon dabena. Izan be, atzen honek paleolitikoko estilo eskematizautako andra irudiak osotuten da-

bezan elementu guztiak daukaz: gorputza, eperdia, eta sabelaldea eta hankea batzean diran lekua. Gainera beso txiker bi eta burua be agertuten dira. "Irudia, kano-nikoa da; hau da Frantzia eta Alemanian topautako bardina" esan eban Rios. Horregaitik ez dago dudarik Gönnesdorf-Lalinde estilokoa danik.

Orain dala 17.500 edo 18.000 urte egindako irudia da. Ikerlariak "Arlanpeko Dama" izena ipini eutsien ikerketen emoitza *Oxford Journal of Archaeology* aldizkarian publiketako. "Venus edo dama" moduan izentatzen dirala paleolitikoko andra irudiak azaldu eban Rios eta gure imaginarioan, Anbotoko Dama dagoanez, "Arlanpeko Dama" egokiago ereti eutsan irudiari izena ipinteko.

Alemanian eta Frantzia estilo honetako garai haretako irudi ugari dagoz, baina ez Iberiar peninsulan. Lemoakoa, Alemanian eta Frantzia topautakoak baino antxinagokoa da. Horregaitik, Lemoan topautako irudiak, arte estilo hau Kantauri aldean sortu eta gero Europara hedatu zaneke teoria indartzen dau.

### Paleolitikoko artea

Paleolitikoko artea modu bitakoa da: hatx-zuloetako artea (kobazuloetako paretetan eta batzuetan, aire librean) eta mobidu daitekean artea: estatuillak, apaindutako gauzak... Arlanpeko Damaran kasuan gatxa da kokatzea, ze mobidu daitekean arren, pisu handiko bloke baten dago.

Paleolitikoko arte figuratiboaren barruan, Willendorf estiloa dago. Honen antxinakotasuna 32.000-20.000 urtekoa da. Andra irudiak dira, neurritz kanpoko sexu ezaugarriak. Mobidu eitekean artea zan, eroatekoa. Estilo honetako Willendorfeko Venus da ezagunena eta Hohle Fels-ekoa (Alemania) zaharrena.

Magdalenienean, barriz, andrak irudikatze orduan, aldaketa erradikala gertatu zan, eta hasi ziran modu figuratibo baina eskematikoan egiten. Gehienetan gainera, konposizio baten parte ziran andra irudiok. Holangoak topau ziran Gönnesdorf-en (Alemania) eta Lalinden (Frantzia).

Arlanpen topautako blokean, hiru grabadu agertzen dira. Bi oso eskematikoak dira; besteak, barriz, Gönnesdorf-Lalinde estiloko ezaugarri guztiak daukaz. Horixe dogu Arlanpeko Dama.



Joseba Rios.

## DUNBA

# Agur 2015 urteari

### Igorreko Inazio Zubizarretako 6. mailako ikasleak

Bi mila ta hamabost joan zaigu berez seigarren mailakoak ez gabiltza trabes Olentzero maitea burdiz edo kotxez euskara gure ahora ekarri mesedez.

Institutura goaz baina ez gara bildur nahiz eta egongo diren zazpi maisu maltzur zera zera da eta lurra da lur aupu urte barria urte zaharra agur.

Ikatzik ez dugu nahi benetan laguna Mari Domingi izan gurekin biguna margo batzuk ekarri andere kuttuna kolorez marrazteko guk etorkizuna.

Kanpo ederrak gara ta ez etxe-kalte zabaltzen ditugunez zortzi hamar ate lanean jarraitzeko gero jo ta ke ondo pasa Gabonak Arratia maite.

Mila zorion danori ez asko loditu eta zer gertatzen den arretaz begitu urte berri maiteak mila gauza ditu baina egun bakoitza distiraz argitu.





## AGENDEA

### URTAILAK 4

#### BEDIA

17:30ean, Gabonetako zinea ludotekan.

#### LEMOA

Hilaren 8ra arte, Zoru pelbikoa indartzea ikastaro aurreratuan izena emoteko epea zabalik Udaleko Kultura Zerbitzuan.

10:00etan, Bilbora urtekera 4, 5 eta 6. mailakoak. Bazkaria etxetik eroan behar da. Itzulera ordua 17:30ean.

Lemoako Haur eta Gazteen Ipuin Lehiaketan parte hartzeako epea zabalik dago. Ipuinak urtailaren 22ra arte entregatu ahal dira liburutegian.

19:30ean, ABD proiektu zinematografiko kolektiboaren aurkezpena. Karabie Gaztetxean.

### URTAILAK 5

#### AREATZA

18:00etan, Erregeen Kabalgatea.

Gauean, Luar Carrey Band taldearen kontzertua Laminetxe Gaztetxean.

#### BEDIA

18:30ean, Errege Magoen Kabalgatea. Aurretik txokolatea bananduko da.

#### DIMA

17:00etan Dimeko Gabonetako I. Pelota Txapelketa. Kategoria bakotzeko finalak jokatu dira frontoian. Bertsolariak eta tabernea egongo dira.

#### IGORRE

18:30ean, Errege Magoen Kabalgatea Mandoia kaletik.

#### LEMOA

23:00etan, Stankeik Band taldearen kontzertua Karabie Gaztetxean.

Donbassera, (Ukraina) gerra eremura, medikuntza eta higiene gauzak eroateko bilketaren azken eguna. Karabie Gaztetxean.

### URTAILAK 7

#### IGORRE

11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea, Zazparrak-en tailerrak. Aterpean.



## Biola kontzertua Areatzan

Areatzako AKKBk antolatutako "Musika bakarrean" zikloaren barruan, Leire Moreno Mugika biolajoleak kontzertua eskeiniko dau urtailaren 16an, arrastiko zazpiretan Areatzako Udal Aretan.

Leire Moreno Algortakoak Leioan hasi ebazan biola ikasketak. Gero, Donostian, Basilean (Suitza) eta Linz-en (Austria) jarraitu eban instrumentua jotzen ikasten. 2009tik Bilboko Orkestra Sinfonikoan jotzen dau. Kontzertuan historian zehar biola bakarrerako egin diran obrak joko ditu. Morenok, Bach, Vieuxtemps, Hindemith eta Ligetiren piezak joko dauz.

19:30ean txalaparta tailerra Kiñu Gaztetxean.

### URTAILAK 9

#### AREATZA

20:00etan, The Memphis Belle Band-en kontzertua The Quiet Corner tabernan.

#### IGORRE

22:00etan, zinea *8 apellidos catalanes* Lasarte Aretan.

### URTAILAK 10

#### IGORRE

17:00etan, zinea *El viaje de Arlo*; 19:30ean, *8 apellidos catalanes*. Lasarte Aretan.

### URTAILAK 11

#### AREATZA

18:00etan, Arratiako Gurutze Gorriak eskeintzen dituan ikastaroen gaineko berbaldia "Zahartze aktiboa" udaletxeko aretoan.

#### IGORRE

Koldo Badilloren *Kaostek labirintora* argazki erakusketa Kultur Etxean.

#### LEMOA

Hilaren 22ra arte, Gazteentzako Europako biajeen izena emoteko epea zabalik. Udaleko Gizartegintza Zerbitzuan. 1998 eta 1995 urteen bitartean jaiotako gazteentzat.

### URTAILAK 12

#### IGORRE

19:00etan, bertso eskolea zeretik hasita Kiñu Gaztetxean.

### URTAILAK 13

#### AREATZA

19:30etik 20:30era, mendi federatzea Lamino Mendi Taldeagaz. Udaletxeko 3. solairuan.

#### BEDIA

17:00etan, 3-5 urte bitarteko umeak; 17:45ean, 6-11 urte bitarteko umeak Umeen Irakurle Kluba Onditiz Mendizabalen eskutik.

#### LEMOA

19:30ean, Jai Batzordeak urteko lehenengo batzarra. Gaia: Inauteriak. Udaletxean.

### URTAILAK 14

#### LEMOA

19:00etan, Durundibarri jantza taldearen 50. urteurrena dala-eta, ospakizuna antolatutako asanblada. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

### URTAILAK 15

#### ARTEA

17:00etan, AKKTK antolatuta, Tuppersex pedagogikoa Ludotekan. AKKTKo bazkideak 5 euro, gainontzekoak 10 euro.

#### BEDIA

18:15ean, Ganguren mendi taldeak antolatuta, hilaren 17ra arte, eski urtekera Baqueirara. Udaletxe ondoan.

#### IGORRE

18:00etan, umeentzako antzerkia Glu-Glu Produzioak-en *Txanogorrixe*. Lasarte Aretan. 5 euro, bazkideak 3,75 euro.



### URTAILAK 16

#### IGORRE

22:00etan, zinea *El puente de los espías*. Lasarte Aretan.

### URTAILAK 17

#### IGORRE

17:00etan zinea *Los cinco y el secreto de la pirámide*; 19:30ean, zinea *El puente de los espías*. Lasarte Aretan.

## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### SALGAI

Bogaboo-a eta sehaska zuria saltzean dodaz. Deitu 679 909 869 telefonora.

#### SALGAI

Relax modua daukien narruzko sofa eta besaulkia saltzean doguz. Deitu 653 727 047 telefonora.

### DANERIK

#### BEHAR BILA

Persona nagusiak eta haurren zaintza edo etxeko beharrak egiteko laguntza behar dozu? Deitu konpromiso barik. Grisel 678 104 166.

#### APARKALEKU ITXIA

Karabanak, autokarabanak... gordetzeko aparkaleku itxia, pabilioi baten barruan. Plaza zabalak, zenbatuak, bakotxa aseguru eta alarmeagaz. Ur lohiak garbitzeko komuna. Arratian. 671 549 015 (Jon).

#### ZERAMIKA IKASTAROA

Zeramika ikastaroaren hasikerea urri bigarrenen! Astean ordu biko klaseak,

arrastietan. Interesauta bazagoz, animau eta deitu 615 731 182 telefonora (Saioa).

#### BEHAR BILA

Etxeko lanak egiten dodaz, 08:30etik 16:00ak arte. Kotxeduna. Dimoztarra. Telefonoa 634 438 725.

#### BEHAR BILA

Delineazino lanak egiten dodaz. CAFen esperientziaduna. Ingeniaria. Dima. Telefonoa 635 207 386.

#### IRAKASLE BILA

Ume bategaz ingelesez berba egiteko nonoren bila gabiz. Interesatuak deitu 605 755 604 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com-era](mailto:begitu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

# Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**1 Axpe Goikoa Jatetxeak emondako txakolin kajatxoa.**

Maitane Campo (Areatza)



**2 Igorreko Udalak emondako Timoteo Atutxa Petralandaren Idatziak eta gutunak liburua.**

Inma Valiente (Lemoa)  
Naia Rodriguez (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13 urte eta ehundaka lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Mosua. Orain ez. 2.- Oxigenoa. Egia ez. 3.- Sugar. Birritan, umeen berbetan, txakur. 4.- Soldada. Bat erromatar. 5.- Eskorpioren azpian dagoan konstelazioa. Zenbaki bat. 6.- Sufrea. Bildurtu. 7.- Suagaz batera. Nekazariaren lanabesa. 8.- Eskukatu. Konsonantea. 9.- Lo asko egiten dauana. Musika notea.

### GOITIK BEHERA

1.- Polonioa. Ipizki. 2.- Bokala. Birritan, irakitearen onomatopeia. Oihartzuna irudikatzen dauan Ninfa. 3.- Sasoi. Antxinako ereskia. 4.- Gizen. Atal. 5.- Ezetza. Erexi. 6.- Bibliako andrazkoa. Etxera sartzeako. Letra bat. 7.- Gogoratu. Astindu.



Topau olinpikoak diran zazpi kirolen izenak.

S	O	K	A	S	A	N	T	O	A
A	R	R	I	K	I	O	I	A	R
L	O	A	B	E	O	S	T	L	U
T	A	T	A	R	L	E	X	O	B
O	P	E	E	U	A	K	O	B	A
M	E	K	A	N	B	O	L	I	N
A	Z	I	G	O	I	K	A	E	O
T	E	R	R	A	K	S	A	L	B
X	U	E	M	I	S	T	A	O	U
I	D	G	O	R	A	U	X	B	A
A	M	I	R	K	S	E	U	F	L
L	I	K	E	T	O	K	A	R	E
P	A	L	A	A	R	E	Y	P	N
A	T	L	E	T	I	S	M	O	A
S	A	D	K	P	O	K	A	R	U



**señ**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnos. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

**Recreativos Gubi S.L.**  
Angel Larrea  
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

**\* KIRRU \* ILEAPANDEGIA SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 beja - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
• 94 631 92 00

**Jose Luis Corbacho**  
pintura lanak  
Sabino Arana, 3. 3a • 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-49-54

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu  
Bixarra egin eta txukunduten dogu  
Elexalde, 20 Rober • 630 743 543  
48.140 Igorre Manuel • 661 848 793

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ  
Balonak: A1, A, B77, B  
Lehendakari Agirre 31  
Tfnos.: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@telefonet.net

**Dia % PEDRO AUTOSERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**AKEITEGIA GAY & LORA**  
IGORRE

**ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...**  
**ZUZENBIDE**  
ABOKATUAK, ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.  
KONTABILITATEA  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, beheka - Igorre (Bizkaia)

**Pinturas Aratia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**Igorren ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, beheka  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta euskaraz zein erdaraz  
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: urrozulu@euskalnet.net



## FREDI PAIA

## "Especializazioarena sano sasoi laburra izan da gizakiaren historian"

Bibolina jotan edo bertsotan, aspaldion askotan

ikusiko duzu Fredi Paia Arratiako herrietatik. Izan

be, algortarrak beti euki dau Arratiagazko loturea:

Arantzazun ikasi eban bizkai euskerea eta kuadrilako

batzuk be Arratian bizi dira. Atzen hamar urteotan,

Arratiako kulturgintzan aldaketa handia egon dala dino

eta kulturgintza potentea daukien lekuetan ekonomia

hazi egiten dala demostratu dauala zientziak.

## Erredakzioa

**Fredi Paia ezagunena bertsoaria da, baina beste gauza asko egiten duzu. Bertsolarietatik haragoko aurkezpenetako bat egin mesedez.**

Enpresa Zuzendaritza eta Administrazioan lizentziatura daukat eta pianoa eta bibolina jotan be ikasi neban. Beharri jagokonean, zazpi urtez beharra aldatzen dot. Ez dakit zergaitik baina halan suertatzen da. Zazpi urtez bertsolari irakasle izan nintzan eta gero, beste zazpi urtez, etnografian ibili nintzan Labayrun.

Unibertsidadean nabil orain doktoretza master bat egiten. Gaia, ekonomia kreatiboa da. Arazo bat daukat izenagaz, ze euskeraz ekonomia sortzailea deitzen deutsie baina niri iruditzen jata berbea irudimena dala. Niretzako sortzaile oso berba gogorra da. Sortzaile *creator* da eta agian *creator* beste gauza bat da.

Kultur ekonomia eta ekonomia kreatiboaren inguruan, Richard Florida Torontoko unibertsidadeko oso ikerketa politikak egin dauz ekonomia eta kultur aniztasuna zelaz dagozan lotuta aztertzen. Eta dino kulturgintza potentea daukien lekuak dirala ekonomikoki asko hazten diranak, eta ez alderantziz. Beti pentsatu izan da, dirua dagoan lekuan hazten dala kultura, eta honek demostratu dau

ezetz, kontrakoa dala kontua. Hau da, kulturgintza indartsua dagoan lekuetan batzuek dala jente formadua eta kreatiboa, eta hori oso lotuta dagoala puntako teknologia daukien enpresakaz.

Momentu honetan bizimodua bertsoetatik eta musikatik ateraten dot. Prensan be idazten dot eta antzerki obra bat egiten nago. Sorkuntzatik bizi naz. Etnografiako zazpi urtetako ziklo horren ostetik, sorkuntzara dediketan naz.

**Gibelurdinek taldean jotan dozu, ezta?**

Bai. Gibelurdinek musika kultur proiektu bat da, 2010ean martxan ipini gendua Euskal Herriko musikea bultzatzeko: kale-animazioa, kontzertu didaktikoak, musika tresnen erakustaldiak eskolatan... Folk musika egiten dogu eta 2012an disko bat be grabatu genduan. *Sua* izeneko pelikularako musikea egitea agindu euskuen eta orduan, diskoa be grabatu genduan.

Euskal Herriatik ibili gara, Eskozia euki genduan jira bat orain dala pare bat urte, eta uda honetan Txilera goaz.

**Zuk zer jotan dozu?**

Bibolina eta txirula. Euskal txirula. Txistua hiru zuloko txirula da, baina hau zaharragoa da, txistuaren arreakoa. Instrumentu honen garapena da txistua.

**Aspaldion sano ikuskizun desbardinak egin duzu Arratian.**

Ni beti ibili naz asko Arratian. Kontzertu batzuk egin doguz, bat Artean. Gero bertsotan be ibili naz; Arratian beti egon da zirkuitu bat bertso-saioena eta.

Arratiagaz aspaldiko lotura daukat: bizkaieria Arratian hasi nintzan ikasten; Arantzazun, hain zuzen. Kuadrilako batzuk be Arratian bizi dira.

**Publiko ona dago hemen?**

Bai. Edade desbardinak publiko dago eta jenteak harrera ona egiten dau orokorrean. Atzen hamar urteotan belaunaldi aldaketa gertatu da eta esango neuke, horrek Arratiako kulturgintzeari onerako eragin deusala. Orain bertso-saioak lehen ikusten ez genduzan lekuetan ikusten doguz eta bertsolariak jente gaztea erakartzen dau. Nekazal azokak be jakin dira kultureagaz buztartzen. Lehen baino aktiboagoa da Arratia.

**Zeanuriko bertso-saioan be egongo zara.**

Bai. Orain dala urte bi be egon ginan han Arkaitz (Estiballes) eta biok. Gauza bat dala edo bestea dala, Arratiako herri gehienetan ibiltzen gara. Orain dala gitxi Diman, Dimetal jaialdian egon nintzan bertsotan. Hori oso aurrerakoa da. Lehenengo aldia da nire bizitzan heavy metal-en mundutik eskatzen deustena bertso-saio bat egiteko, bertso-bazkari bat. Beti izan gara mundu urrunak, bertsolariak eta heavy metala.

Esperientzia ona izan zan. Jenteak oso ondo hartu eban. Bagoan bertsolariak zer zan be ez ekian jentea eta harritu egin zan.

**"Dimetal Fest jaialdian**

**peluka batzuk jantzi**

**genduzan estetikoki**

**apur bat hurbilago**

**sentiduteko"**



Peluka batzuk jantzi genduzan, estetikoki apur bat hurbilago sentiduteko.

**Arratiako herrietatik segiduz, Areatzako Errefrau Lehiaketan be egon zinan.**

Bai aurten eta igaz be bai. Aurten jaizubian egin zan eta jente gitxitxoago egon da, baina hori be oso ondo egoten da. Ez da edozein publikotarako baina polita da edozelan be. Bertsolariak zabaltzen dabil. Sopelan holango Errefrau Lehiaketa atzenengo 25 urteotan egin izan da. Dana dala, errefrauak edo atsoitzak, heavy metala baino hurbilago dagoz bertsolarietatik, ze azken finean agozko literatura genero bi dira. Ikuskizun oso desbardinak izan arren, esan leike badagoala jente bat segiduten dituala saioak herririk herri.

**Bertsolaritza, musikea, antzerkia, etnografia... Errenazimentuko gizona zara?**

Berbizkunde sasoi batera goaz barriro. Uste dot amaitu dala ultra espezializazioaren garaia. Espezializazioak sekulako arazoak sortzen dauz aldaketa ekonomikoki egoten diranean, jenteak ikasteko gaitasuna galtzen dau-lako, eta batez be moldatzeko gaitasuna. Esate baterako, persona bat baldin badago bizitza osoan

torlojuak ipinten, eta horixe bada bere behar bakarra, torlojuak beste leku baten egiten diranean persona hori umezurtz geratuko da, gaitasun barik, ze ez dago ohituta ikasketa prozesu baten barruan gauza desbardinak ikasten eta gauza desbardinak lan egiten. Gaur egun beharrezko malgutasun handia eskatzen deuskue. Espezializazioa be bai baina prozesu baten barruan, gauzak arin aldatzen dira eta.

Espezializazioaren sasoi oso sasoi laburra izan da gizakiaren historian. Aurretik be ekonomia preindustrialean baserri baten, hainbat behar desbardin egin behar izaten ziran. Ehun eta piku urtez baino ez gara bizi izan espezializazioaren kontu honetan. Paradigma konkretu horren barruan bizi dala asko sufriduten dau aldaketa ekonomikoki bortitz honegatik, zeren egun batetik bestera geratzen da zaharkituta, makinaren moduan. Horregaitik dinot berbizkunde batera goazela barriro.

**2016ra begira, proiektu barririk badaukazu?**

Jaialdi bat egingo deusagu The Pogues taldeko Shane MacGowaneri. Unai Elorriagaz batera, ikuskizun literario-musikala izango da. Bilbon aurkeztuko dogu apirilaren 22an, Kafe Antzokian.

**begitu**  
arratia ubide zeberio

**www.begitu.org**

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115